Zuhatzuko Atea, 19
01015 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945187155
zabalganabhi@zabalganabhi.net
www.zabalganabhi.eus

Familia agurgarria:

Idazki honen bidez **HEDATZE** proiektuan **hirugarren hiruhilekoan (apirilaren 11tik maiatzaren 30ararte, 5 ostegun guztira)** ikasleei eskainiko dizkiegun tailerren inguruan informatu nahi dizuegu. Tailerrak **ostegunetan**, **15:30etik 17:30era** burutuko dira. Hedatzeko egutegian (webgunean dago eta emailez ere jaso duzue) ostegun guztien datak eskuragarri dituzue.

**KONTUZ!** Ondo behatu tailer ezberdinen datak. Tailer bakoitzak data ezberdinak ditu. Ez dira ostegun guztietan tailer guztiak landuko

Tailerren ezaugarriak askotarikoak direnez, ondoren zehaztuko dira tailer bakoitzaren datak, informazioa eta bestelako xehetasunak:

| Tailerra | Arduraduna | Datak |
|---|---|---|
| **TXANGOA BIZIKLETAZ** | Aitor Arraiza | Apirilak 11 eta 18, Maiatzak 16, 23 eta 30. |
| **Nori zuzenduta** | DBH-ko ikaslego osoari | |
| **Helburuak** | - Bizikletaz nola ibili jakitea.<br>- Bide-hezkuntza aplikatzea.<br>- Gasteizen zeharko Ibilbide desberdinak ezagutzea, bide gorriak erabiliz.<br>- Naturan egin daitezkeen ibilbide desberdinak ezagutzea (Armentiako Basoa, Olarizu Parkea, Salburuako Parke Naturala, Gasteizko Eraztun Berdea)<br><br>Bizikleta ekartzea beharrezkoa da. | |
| **Saio kopurua** | 5 saio | |

| Tailerra | Arduraduna | Iraupena |
|---|---|---|
| **JOSTEKO MAKINAN HASTEKO IKASTAROA** | Mireia Landa eta Ana Saez del Burgo | Apirilak 11 eta 18, Maiatzak 16, 23 eta 30 |
| **Nori zuzenduta** | Ikasle guztiei | |
| **Helburuak** | Etxean ditugun oihal zatiei, arropa zaharrei, euritako apurtuei, etab. Bigarren aukera bat ematea. | |
| **Saio kopurua** | 5 saio | |

Zuhatzuko Atea, 19
01015 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945187155
zabalganabhi@zabalganabhi.net
www.zabalganabhi.eus

| Tailerra | Arduraduna | Datak |
|---|---|---|
| **DJ TAILERRA** | Iñigo Lopez de Sosoaga | Apirilak 18, Maiatzak 16, 23 eta 30. |
| **Nori zuzenduta** | Ikasle guztiei. Gehienez 12 ikasle parte hartu ahal izango dute. Gehiagok izena eman ez gero, lehentasuna emango zaie Musika ikasgaia ez duten ikasleei. Hala ere arazoak egon ez gero, zozketaz aukeratuko dira partaideak. | |
| **Helburuak** | DJ lanarekin lotutako oinarriak:<br>Musika genero desberdinak aztertu.<br>Playlist bat sortu.<br>Abestien arteko nahasketa teknikak ezagutu.<br>Teknika desberdinak praktikara eramateko beharrezko ekipoa ezagutu.<br>Chromebooka ekarri! | |
| **Saio kopurua** | 4 saio | |

| Tailerra | Arduraduna | Datak |
|---|---|---|
| **ERRITMO TAILERRA** | Luis Galilea | Apirilak 18, Maiatzak 16, 23 eta 30 |
| **Nori zuzenduta** | Ikasle guztiei. Gehienez 10 ikasle parte hartu ahal izango dute. Gehiagok izena eman ez gero, lehentasuna emango zaie Musika ikasgaia ez duten ikasleei. Hala ere arazoak egon ez gero, zozketaz aukeratuko dira partaideak. | |
| **Helburuak** | Erritmoarekin lotutako jolasak, Bateriaren lehenengo urratsak eta Txalaparta besteak beste.<br>Erritmoa gugan dugun jatorrizko gaitasuna da eta hau garatuz, arreta, lateralitatea, sormena etab. hobetuko ditugu. | |
| **Saio kopurua** | 4 saio | |

Zuhatzuko Atea, 19
01015 Vitoria-Gasteiz
Tfnoa.: 945187155
zabalganabhi@zabalganabhi.net
www.zabalganabhi.eus

| Tailerra | Arduraduna | Datak |
|---|---|---|
| **TXANGO ORNITOLOGIKOA** | Nahia Lopez eta Belén Seijas | Apirilak 11 eta Maiatzak 16 |
| **Nori zuzenduta** | DBH1-2 ikasleak | |
| **Helburuak** | DBH1-2 ikasleentzat, Zabalgana auzotik txango ornitologikoa egingo dugu, prismatikoekin hegaztiak ikusi eta identifikatzeko. | |
| **Saio kopurua** | 2 saio | |

| Tailerra | Arduraduna | Datak |
|---|---|---|
| **EBAUrako PRESTAKUNTZA** | Itxaso Sáenz | Maiatzak 16, 23 eta 30 |
| **Nori zuzenduta** | 2. Batxilergo ikaslegoari | |
| **Helburuak** | EBAUrako azterketak prestatzeko tailerra | |
| **Saio kopurua** | 3 saio | |

| Tailerra | Arduraduna | Iraupena |
|---|---|---|
| **Webgune bat egin** | Aritz Taberna eta Iker Coranti | Apirilak 11 eta 18, Maiatzak 16 eta 23 |
| **Nori zuzenduta** | Ikasle guztiei | |
| **Helburuak** | Zuen espazio birtuala diseinatzea. | |
| **Saio kopurua** | 4 saio | |

Zuen seme/alaba edozein tailerretan interesatuta badago, etxera eramango duen matrikula-orria osatu eta sinatu eta zuen seme/alabak bere **tutoreari** entregatu beharko dio **apririlaren 9a baino lehen (asteartea).**

Adeitasunez,

Zabalgana BHI